

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

94

983/2006 FORU AGINDUA, azaroaren 14koa. Honen bidez, Zuiako Udalak egindako errekerimendua onetsi da eta udalerriko lurzoru ez urbanizagarriaren inguruko Arau Subsidiarioen Ikuskapen espedientea behin betiko onartu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Hirigintza eta Ingurumen Sailaren abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduaren bidez erabaki zen Zuiako udalerriko Plangintzari buruzko Arau Subsidiarioen Ikuskapenaren behin betiko onarpena bertan behera uztea, antzeman diren akatsak zuzendu arte, proposatutako lurralde ereduak dituen beharizanak betetzeko behar den ur hornidura bermatze aldera.

Bigarrena.- 2006ko urriaren 27an Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrera sartu zen idatzi bidez, Zuiako Udalak errekerimendua egin zuen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeko 44. artikuluan ezarritakoaren babesean, errekerimenduaren xedea den Foru Agindua zati batean baliogabetu dadin eta udalerriko lurzoru ez urbanizagarriaren inguruko Arau Subsidiarioen Ikuskapena behin betiko onartzea erabaki dadin.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Auzitegi Gorenak doktrina gorputz landu bat gauzatu du, planen zatikako onarpenaren gaiarekin lotuta, guztiz zilegi den alternatiba gisa. Izan ere, interes publikoaren eskakizunekin erabat bateratzen da, interes publikoak azkartasuna eskatzen baitu, bai eta udal autonomiarekin ere, bere asmoarekiko errespetua eskatzen baitu. Ildo horri jarraiki, 1992ko ekainaren 30eko Epaia aipatu behar da.

Bigarrena.- Zuiako Udalaren eskaera, nahiz eta proposamena ezohikoa izan, Jurisprudentiak gauzatutako doktrinarekin guztiz bat dator. Hala, espedientearen behin betiko onarpena lurzoru ez urbanizagarriari dagokionez soilik egin daiteke, lurzoru mota horri babes zabalagoa emate aldera.

Hori dela bide, eta ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa. Zuiako Udalak egindako errekerimendua onestea, zeinak udalerriko lurzoru ez urbanizagarriaren inguruko Arau Subsidiarioak zati batean onartzea eskatzen zuen.

Bigarrena. Zuiako udalerriko lurzoru ez urbanizagarriaren inguruko Arau Subsidiarioen Ikuskapen espedientea behin betiko onartzea.

Hirugarrena. Zuiako Udalak abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Aginduan aipatutako aldaketak sartu beharko ditu, lurzoru ez urbanizagarriaren ingurukoak, araudia argitara atera baino lehen.

Laugarrena. Foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek, abiaraz dezaketen beste edozein neurritz gain, ondoko errekurtsioak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa EAEko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako aretoaren aurrean, ekintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsioa baino lehenago, interesdunek berraztertze errekurtsioa jar diezaiokete, edo beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen erakunde berberari. Horretarako, hilabeteko epea izango da hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztia jakinaren gainean egon daitezen argitaratu da iragarpen hau.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urtarrilaren 15a.- Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatua, Marta Alaña Alonso.

DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

94

ORDEN FORAL 983/2006, de 14 de noviembre, de estimación del requerimiento formulado por el Ayuntamiento de Zuia y aprobación definitiva del expediente de revisión de las Normas Subsidiarias del municipio de Zuia en el ámbito del suelo no urbanizable de su término municipal.

ANTECEDENTES

Primero.- Mediante Orden Foral nº 700/2006, de 4 de agosto, del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente, se acordó suspender la aprobación definitiva de la revisión de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zuia, en tanto no se subsane la deficiencia consistente en garantizar el suministro para el abastecimiento de agua necesaria para la satisfacción de las necesidades del modelo territorial propuesto.

Segundo.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 27 de octubre de 2006, el Ayuntamiento de Zuia formula requerimiento, al amparo de lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, para que se anule parcialmente la Orden foral objeto del requerimiento y se acuerde la aprobación definitiva de la revisión de las Normas Subsidiarias respecto del suelo no urbanizable del término municipal.

FUNDAMENTOS

Primero.- El Tribunal Supremo ha formado un elaborado cuerpo de doctrina en relación con el tema de las aprobaciones parciales de Planes como alternativa perfectamente lícita, en cuanto armoniza plenamente con las exigencias del interés público que demanda celeridad y de la autonomía municipal que reclama el mayor respeto para su voluntad. En este sentido cabe citar, por todas, la Sentencia de 30 de junio de 1992.

Segundo.- La petición del Ayuntamiento de Zuia, pese a lo atípico de su propuesta, tiene pleno encaje en la doctrina elaborada por la Jurisprudencia, siendo posible la aprobación definitiva del expediente solamente referida al suelo no urbanizable, al objeto de dotar de una mayor protección a esta clase de suelo.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero. Estimar el requerimiento formulado por el Ayuntamiento de Zuia por el que solicitaba que fueran aprobadas parcialmente las Normas Subsidiarias en el ámbito del suelo no urbanizable del término municipal.

Segundo. Aprobar definitivamente el expediente de revisión de las Normas Subsidiarias del municipio de Zuia en el ámbito del suelo no urbanizable del término municipal.

Tercero. El Ayuntamiento de Zuia deberá introducir las modificaciones señaladas en la Orden Foral nº 700/2006, de 4 de agosto, respecto al suelo no urbanizable, antes de proceder a la publicación de la normativa.

Cuarto. Publicar la presente resolución en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Quinto. Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Lo que se publica para general conocimiento.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de enero de 2007.- La Diputada de Urbanismo y Medio Ambiente, Marta Alaña Alonso.

HIRIGINTZAKO ARAUTEGIA

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izaera eta lurralde eremua

1.- Arau Subsidiario hauek udalerriko lurralde osotara antolatzeko tresna dira. Hartara, eta indarrean dagoen hirigintza legediari jarraikiz, lurraldearen egitura orokorraren oinarriko elementuak definitu eta lurra sailkatzen dute, lur mota eta kategoria bakoitzari dagokion araubide juridikoak ezarriz. Gainera, lurraldearen jabetza eskubideari dagozkion hirigintza ahalmenak mugatzen dituzte eta ahalmen horiek legez eta benetan erabiltzea baldintzatzen duten betebeharrak zehazten, zuzenean nahiz garapenerako aurreikusitako plangintza tresnak erabiliz.

2.- Arau Subsidiario hauen lurralde eremua Zuiako (Araba) udalerrira osoa da.

2. artikulua.- Indarraldia

Arauek behin betiko onartu ondoren, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean. Indarraldian jarraituko dute mugarik gabe, harik eta berrikusten diren arte; hala ere, aldaketak egin ahal izango dituzte.

3. artikulua.- Arau Subsidiarioen ondorioak

1.- Arau Subsidiarioek hurrengo ondorioak izango dituzte indarrean sartzean:

a) Publizitatea. Horrek esan nahi du edozein hiritarrek duela arau hauek kontsultatze eskubidea, bai eta edukiari nahiz aplikazioari buruzko informazio idatzia jasotzeko eskubidea ere. Betiere, arau hauetan xedatutako eran gauzatuko dira eskubide horiek.

b) Betearazi beharra. Horrek berekin dakar, batetik, arauetan aurreikusitako proiektuei eta obra berriei ekiteko gaitasuna; eta, bestetik, obra horiek onura publikotzat izendatzea, eta obra horiek egiteko, dagozkien lurralde eta eraikinak okupatu beharra adieraztea, desjabetzearen edo zorrak ezartzearen. Oro har, legean eta arau hauetan jasotako eginkizunak aurrera eramateko gaitasuna ematen zaio udalari, bere xedapenak egoki betetzeko beharrezko diren alderdi guztiak buruz.

c) Nahitaezotasuna. Horrek esan nahi du xedapen guztiak zehatz mehatz betetzea eska daitekeela legez. Beraz, denek bete behar dute hemen xedatutakoa, bai udalak, bai administrazio publikoko beste erakundeek, bai partikularrek.

4. artikulua.- Arauek berraztertzea

1.- Arauek berrikusiko dira baldin eta hauetako egoeraren bat edo beste agertzen bada:

a) Hala eskatu nahiz horretara behartzen duen eremu handiagoko lurralde antolamenduko dokumentu bat onartzea.

b) Arau Subsidiarioetan bizitegiak nahiz industriak egiteko ahalmenaren % 50 agortzea.

c) Udal mugartean lurralde eremu honetan aldaketa orokorra dakarren egitura eskuhartzea egin beharra egotea.

d) Plangintzari buruzko oinarriko zehaztapenak neurtzerakoan erabili diren hipotesietan errakuntzak edo gabeziak daudela ohartzean; eta, zehazki, ondokoa baieztatzen denean: lau urtean hazkunde hipotesietan kalkulaturako hazkundearen % 50 baino bizitegi gutxiago eraikitzen direnean.

5. artikulua.- Arauek aldatzea

1.- Hauxe da Arau Subsidiarioak aldatzea: bertako agiri edo zehaztapenak aldatzea edo haiei zerbait gehitzea, baldin eta hori, aurreko artikuluan araututakoari jarraituz, berrikuspena ez bada, eta, oro har, arauak bere osotasunean hartu gabe onesten diren aldaketa guztiak, hau da, lurraldearen egitura orokor eta organikoari eta lurraldearen sailkapenari era mugatuan eta salbuespen gisa baino eragiten ez dietenak.

2.- Hasiera batean, ondorengo hauek ez dira arau aldaketatzat hartuko:

NORMATIVA URBANÍSTICA

TÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Naturaleza y ámbito territorial

1.- Las presentes Normas Subsidiarias son el instrumento de ordenación integral del territorio del municipio y, a tal efecto y de conformidad con la legislación urbanística vigente, define los elementos básicos de la estructura general del territorio y clasifica el suelo, estableciendo los regímenes jurídicos correspondientes a cada clase y categoría del mismo. Además, ya sea directamente o por medio de los instrumentos de planeamiento previstos para su desarrollo, delimita las facultades urbanísticas propias del derecho de propiedad del suelo y especifica los deberes que condicionan la efectividad y ejercicio legítimo de dichas facultades.

2.- El ámbito territorial de estas Normas Subsidiarias se extiende a todo el término municipal de Zuia (Álava).

Artículo 2.- Vigencia

Una vez aprobadas definitivamente las Normas entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava - Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala, y mantendrán su vigencia indefinidamente mientras no sean revisadas, sin perjuicio de sus eventuales modificaciones.

Artículo 3.- Efectos de las Normas Subsidiarias

1.- La entrada en vigor de las Normas Subsidiarias le confiere los siguientes efectos:

a) Publicidad, lo que supone el derecho de cualquier ciudadano a consultarlo por sí mismo, o a recabar información escrita sobre su contenido y aplicación en la forma que se regule según las presentes Normas.

b) Ejecutoriedad, lo que implica, por una parte la facultad para emprender la realización de los proyectos y obras que en las Normas están previstos, la declaración de la utilidad pública de los mismos y de la necesidad de ocupación de los terrenos y edificios correspondientes a los fines de expropiación o de imposición de servidumbre y, en general, la habilitación para el ejercicio por el Ayuntamiento de las funciones enunciadas por la Ley y por las propias Normas en lo que sea necesario para el cumplimiento cabal de sus determinaciones.

c) Obligatoriedad, lo que apareja el deber, legalmente exigible, del cumplimiento exacto de todas y cada una de sus determinaciones, tanto para el Ayuntamiento y los demás Organismos de la Administración Pública, como para los particulares.

Artículo 4.- Revisión de las Normas

1.- Se procederá a la revisión de las Normas si se produjeren algunas de las siguientes circunstancias:

a) Aprobación de un documento de ordenación territorial de ámbito superior que así lo disponga o lo haga necesario.

b) Agotamiento del 50% de la capacidad residencial o industrial de las Normas.

c) Necesidad de alguna intervención estructural dentro del término municipal que suponga una distorsión generalizada en relación con el modelo territorial propuesto.

d) La apreciación de errores o insuficiencias en las hipótesis que han sido utilizadas para el dimensionamiento de las determinaciones básicas del planeamiento; y concretamente cuando se compruebe que el crecimiento residencial producido en cuatro años consecutivos ha resultado inferior al 50% del estimado en las hipótesis de crecimiento.

Artículo 5.- Modificación de las Normas

1.- Se entiende por modificación de las Normas Subsidiarias toda alteración o adición de sus documentos o determinaciones que no constituya supuesto de revisión conforme a lo previsto en el artículo anterior, y, en general las que puedan aprobarse, en su caso, sin reconsiderar la globalidad de las Normas por no afectar, salvo de modo puntual y aislado, a la estructura general y orgánica del territorio o a la clasificación del suelo.

2.- No se considerarán, en principio, modificaciones de las Normas:

a) Arau hauek garapen plangintzari erreserbatzen dietena kontuan hartuta, eta legeak uzten duen zehaztasun tartea dela-eta sor daitezkeen aldaketak, araudi honetan lur mota bakoitzarentzat ezarritakoari jarraituz.

b) Jarduketa unitateak mugatzeko plangintzak eskatzen dituen garrantzi gutxiko egokitze puntualak, nahiz eta lurraren sailkapenari eragin; betiere, baldin eta sistema orokorretarako nahiz esparru libre eta publikoetarako lurrak gutxitzen ez badituzte, eta guztira mozkinetako aprobetxamenduak gehitzen ez badira.

c) Hala badagokio, arauetako zenbait alderdi garatu nahiz argitzeko udal ordenantzak onartzen badira, araudi honetan aurreikusita egon edo ez.

d) Babesteko plan bereziak onartu edo aldatzeko katalogoan eragindako zuzenketak.

3.- Aldaketa guztiak Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 47. artikuluan aurreikusitakoari egokituko zaizkio. Horrez gain, arau hauetako zehazpenei jarraituko diete, zein helburu duten kontuan izanda.

6. artikulua.- Arau Subsidiarioen dokumentazioa

1.- Arau Subsidiarioetan azaltzen diren agiriek unitate koherentea osatzen dute, eta bertako zehaztapenak aplikatu behar dira, hitzen eta grafismoen esanahia eta aplikatzen diren uanean bizi den gizarte egoera kontuan hartuta, horrela arauen helburuak hobeki beteko baitira.

2.- Hona hemen arau hauek osatzen dituzten dokumentuak:

a) Dokumentu idatziak.

- Memoria
- Hirigintzako arauak.
- Kudeaketa fitxak.

b) Dokumentu grafikoak.

- Informazio planoak.
- Antolamendu planoak.

3.- Aurreko agirietatik, hirigintza arauak eta antolamendu planoak bakarrik dute arau balioa.

7. artikulua.- Arauen interpretazioa.

1.- Arauak beraien edukia kontuan hartuta eta Memorian adierazitako helburu eta xedeekin bat etorriaz interpretatuko dira.

Zalantzaren bat gertatzen bada edo zerbait guztiz zehatz ez badago, honelako interpretazioak gailenduko dira: eraikinak egiteko lur gutxien erabiliko dutenak, eta espazio libre eta komunitate ekipamendu gehien emango dutenak; babestutako ondarea hobeki kontserbatuko dutenak; hiri irudia eta paisaia eta ingurumen naturala gutxien hondatuko dutenak; han dauden erabilera eta jarduera tradizionalak gutxien aldatuko dituztenak; eta giza taldearen interes orokorrenaren aldekoak.

2.- Arauak eta antolamendu planoak bat ez badatoz, testuak izango du lehentasuna marrazkien aldean.

Antolamendu planoak euren artean bat ez badatoz, eskalarik handienekoak izango du lehentasuna, agiri idatzietan bestelakorik ondorioztatzen ez bada, hau da, agiri idatziak irakurrita eskala handieneko planoan akats materialak daudela ohartu ezean. Planoko neurriak eta benetako neurriak bat ez badatoz, benetako neurriak hartuko dira kontuan.

Agiri honen barruko arauen arteko kontraesanik badago, lehentasuna arau zehatzari emango zaio eta ez orokorrari, salbu eta aldea lehenengo horren eta bigarrenaren barruko definizio eta kontzeptuen artean denean, horrelakoetan bigarreneko horiek izango baitira lehentasuna izango dutenak.

3.- Dozein argibide edo interpretazio emanda ere, arrazoizko zalantzarik sortzen bada, txosten tekniko eta juridikoa prestatu beharko da gai horri buruz. Bertan aukerako interpretazioak planteatuko dira, eta korporazioak zuzentzat zein jotzen duen adieraziko da. Aurrerantzean, Arauen azalpen gisa adieraziko da puntu hori.

Zalantzak pisu handikoak direnean, hots, agiriko xedapenetako funtsezko alderdiak zalantzan jartzen direnean, Arauak aldatzeko ezarritako izapide eurak burutu beharko dira.

a) Las alteraciones que puedan resultar del margen de concreción que la Ley y las propias Normas reserva al planeamiento de desarrollo, según lo especificado en esta normativa para cada clase de suelo.

b) Los meros reajustes puntuales y de escasa entidad que la ejecución del planeamiento requiera justificadamente en la delimitación de las unidades de actuación, aunque afecten a la clasificación del suelo, siempre que no supongan reducción de las superficies destinadas a Sistemas Generales o a espacios libres públicos de otra clase, ni aumento de los aprovechamientos lucrativos totales.

c) La aprobación, en su caso, de Ordenanzas Municipales para el desarrollo o aclaración de aspectos determinados de las Normas, se hallen o no previstas en esta normativa.

d) Las rectificaciones del catálogo producidas por la aprobación o modificaciones de Planes Especiales de protección.

3.- Cada modificación se ajustará a lo prevenido en el artículo 47 del T.R.L.S. y, además, a las especificaciones de las presentes Normas, según cual sea su objeto.

Artículo 6.- Documentación de las Normas Subsidiarias

1.- Los distintos documentos de las Normas Subsidiarias integran una unidad coherente cuyas determinaciones deberán aplicarse, partiendo del sentido de las palabras y de los grafismos, en orden al mejor cumplimiento de los objetivos generales de las propias Normas y atendida la realidad social del momento en que se apliquen.

2.- Los documentos que integran las Normas son:

a) Documentos escritos.

- Memoria
- Normas Urbanísticas.
- Fichas de Gestión.

b) Documentos gráficos

- Planos de información.
- Planos de ordenación.

3.- De los anteriores documentos solamente tienen valor normativo las normas urbanísticas y los planos de ordenación.

Artículo 7.- Interpretación de las Normas.

1.- Las Normas se interpretarán atendiendo a su contenido y con sujeción a los objetivos y finalidades expresadas en la memoria.

En los casos de duda o imprecisión prevalecerá la interpretación más favorable a la menor edificabilidad y a la mayor dotación de espacios libres y equipamiento comunitario, a la mejor conservación del patrimonio protegido, al menor deterioro del ambiente natural del paisaje y de la imagen urbana, a la menor transformación de los usos y actividades tradicionales existentes y al interés más general de la colectividad.

2.- En caso de contradicción entre normas y planos de ordenación se otorgará primacía al texto sobre el dibujo.

En caso de discrepancia entre los diversos planos de ordenación prevalecerá el documento de mayor escala, salvo que de la documentación escrita se desprendiera fehacientemente una interpretación contraria que permita deducir la existencia de errores materiales en aquél. Si existiesen contradicciones entre mediciones sobre plano y sobre la realidad prevalecerán estas últimas.

En el supuesto de contradicción entre las diversas normas de este Documento, tendrá primacía la norma específica sobre la general, excepto cuando se produzca entre la primera y las definiciones y conceptos contenidos en la segunda, en cuyo caso prevalecerán estos.

3.- Toda aclaración o interpretación que suscite dudas razonables requerirá un informe técnico-jurídico sobre el tema, en el que consten las posibles alternativas de interpretación, definiéndose la Corporación sobre cual es la correcta, incorporándose en lo sucesivo como nota aclaratoria de las Normas.

Cuando sean de tal entidad que afecten a aspectos sustanciales de las determinaciones del Documento, deberá seguirse una tramitación idéntica a la establecida para las modificaciones de las Normas.

II. TITULUA.- ARAU SUBSIDIARIOAK GARATZEA ETA GAUZATZEA

1. kapitulua.- XEDAPEN OROKORRAK

8. artikulua.- Hirigintzako jarduketa tresnak.

1.- Arau Subsidiarioak hirigintzari buruzko legedian ezarri bezala garatzeko, ondorengo tresnak erabiliko dira:

- a) Antolamendu tresnak
- b) Gauzatze tresnak
- c) Urbanizazio eta eraikuntza tresnak

2. kapitulua.- ANTOLAMENDU TRESNAK

9. artikulua.- Plan partzialak.

1.- Plan partzialen xedea Arau hauetan lurzoru urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoruaren antolamendu xehatua egitea da. (Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 13. artikulua eta Hirigintza Plangintzako Arautegiko 43. artikulua).

2.- Plan Partzialek gutxienez honako edukia eduki behar dute: Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 83. artikuluan, Hirigintza Plangintzako Arautegiko 45. eta 46. artikuluetan eta Arau hauetan aipatutako zehaztapenak eta dokumentuak, bereziki bitarteko honen bidez garatu beharreko sektoreetan zehatz-mehatz xedatutakoa. Horko zehaztapenak Hirigintza Plangintzako Arautegiko 57-63 bitarteko artikuluetan xedatutako agirietan jasoko dira.

10. artikulua.- Plan bereziak.

1.- Plan berezien xede izango da Hirigintza Plangintzako Arautegiko 76.2) eta 3) artikuluan eta Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 17. artikuluan aipatzen den edozein.

2.- Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 17.3. artikuluan eta hurrengoetan, eta Hirigintza Plangintzako Arautegiko 76. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen diren zehaztapenak eta agiriak jasoko dira plan berezietan.

Arau Subsidiario hauek mugatzen dituzten esparruetan diharduten plan bereziek euren arau espezifikoeetan esparru bakoitzarentzat adierazten den edukia errespetatuko dute.

3.- Arau Subsidiario hauetan aurreikusi gabeko plan berezia bada, lurraldearen egitura orokorra eta organikoa errespetatuko da osoz osorik.

11. artikulua.- Xehetasunezko azterlanak.

1- Xehetasunezko azterlanek Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 14. artikuluan eta Hirigintza Plangintzako Arautegiko 65. eta 66. artikuluetan aipatzen diren zehaztapenak jaso behar dituzte, gutxienez.

Ezingo dute inolaz ere azterlan horiek aldaketarik egin sistema orokorretan, sistema lokaletan eta eraikinetako fatxada nagusiko lerrokaduretan, eraikin hori bidearekiko ordenatzen den kasuetan.

Era berean, araudi honetan ezarritako baldintzak, eta hala badagokio, araudi hau garatuko duen plan partzialesan edo plan berezian ezarritakoak bete beharko dituzte.

2.- Arau berezietan eta Arau Subsidiarioak garatzen dituzten hirigintza sistemetan adierazten diren kasuetan idatziko dira xehetasunezko azterlanak; edo udalak, bere borondatez edo interesdunek eskatu ondoren, hala agintzen duenean, jarduera edo kokagune bateko urbanizazio egoera kontuan hartuta.

3. kapitulua.- KUDEAKETA TRESNAK

12. artikulua.- Jarduketa sistemak.

1.- Plangintzaren kudeaketa egiteko, indarrean dagoen hirigintzako legerian aurreikusten diren jarduketa sistemetakoren bat erabiliko da.

Jarduketa sistema arau hauetan azaltzen diren zehaztapenak kontuan hartuta aukeratuko du Udalak, eta arauak ez badute horri buruz ezer esaten, une horretako inguruabarren eta beharren arabera egingo du aukera.

4. kapitulua.- GAUZATZE MATERIALEKO TRESNAK

1. atala. Xedapen orokorrak.

13. artikulua.- Proiektu motak.

1.- Arau Subsidiarioetan eta arau horiek garatzen dituzten tresnetan azaltzen diren zehaztapenak gauzatzeko, proiektu teknikoak

TÍTULO II. DESARROLLO Y EJECUCIÓN DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS

Capítulo 1.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 8.- Instrumentos de actuación urbanística.

1.- Para el desarrollo de las Normas Subsidiarias con arreglo a lo establecido en la legislación urbanística, se procederá mediante los siguientes tipos de instrumentos:

- a) Instrumentos de ordenación
- b) Instrumentos de ejecución
- c) Instrumentos de urbanización y construcción

Capítulo 2.- INSTRUMENTOS DE ORDENACIÓN

Artículo 9.- Planes Parciales.

1.- Los Planos Parciales tienen como finalidad la ordenación detallada del suelo clasificado en estas Normas como Suelo Urbanizable. (art. 13 de T.R.L.S. y 43 de R.P.U.).

2.- Los Planos Parciales contendrán, como mínimo, las determinaciones y documentación que señala el art. 83 T.R.L.S. y en los artículos 45 y 46 del R.P.U. y en estas Normas, en especial en los aspectos que se señalan específicamente para cada uno de los sectores que se han de desarrollar mediante este instrumento. Sus determinaciones se contendrán en los documentos previstos en los artículos 57 a 63 del R.P.U.

Artículo 10.- Planes Especiales.

1.- Los Planes Especiales podrán tener como finalidad cualquiera de las señaladas en el artículo 76.2) y 3) del R.P.U. y 17 del T.R.L.S.

2.- Los Planes Especiales contendrán las determinaciones y documentación que señalan los artículos 17.3 y siguientes del T.R.L.S., y los artículos 76 y siguientes del R.P.U.

Los Planes Especiales que actúen sobre áreas delimitadas por las Normas Subsidiarias para ser desarrolladas mediante esta figura de planeamiento, respetarán el contenido que, para cada una de ellas, se especifica en sus normas específicas.

3.- Cuando se trate de un Plan Especial, no previsto por estas Normas, se respetará la Estructura General y Orgánica del Territorio en su integridad.

Artículo 11.- Estudios de Detalle.

1- Los Estudios de Detalle habrán de contener al menos las determinaciones que se señalan en el artículo 14 del T.R.L.S. y artículos 65 y 66 de su R.P.U.

En ningún caso podrán introducir modificaciones en los Sistemas Generales, los Sistemas Locales y las alineaciones de fachada principal de las edificaciones en el tipo de ordenación de alineación viaria.

Igualmente se someterán a cuantas condiciones se impongan en la presente Normativa y todas aquellas definidas en el Plan Parcial o Especial que desarrollen.

2.- Los Estudios de Detalle se redactarán en aquellos supuestos en que así aparezca dispuesto en las normas específicas y en los instrumentos de planeamiento de desarrollo de las Normas Subsidiarias, o cuando el Ayuntamiento lo considere necesario, por propia iniciativa o a propuesta de interesados, en atención a las circunstancias urbanísticas de una actuación o emplazamiento determinados.

Capítulo 3.- INSTRUMENTOS DE GESTIÓN

Artículo 12.- Sistemas de actuación.

1.- La gestión del planeamiento se llevará a cabo por alguno de los sistemas de actuación previstos en la Legislación Urbanística vigente.

El Ayuntamiento elegirá el sistema de actuación atendiendo a las determinaciones que al respecto señalan las presentes Normas y cuando éstas no lo indicaren lo fijará según las condiciones y circunstancias que concurren.

Capítulo 4.- INSTRUMENTOS DE EJECUCIÓN MATERIAL

Sección 1ª. Disposiciones Generales.

Artículo 13.- Clases de proyectos.

1.- La ejecución material de las determinaciones de las Normas Subsidiarias y de sus instrumentos de desarrollo se realizará mediante

erabiliko dira. Proiektu horiek ondorengo motaren batekoak izango dira, euren xedea kontuan hartuta. Hona hemen:

- a) Hirigintza partzelazioei buruzkoak
- b) Urbanizazio proiektuak
- c) Urbanizazio obra arruntei buruzkoak
- d) Eraikuntza proiektuak
- e) Hirigintzako beste jarduketak batzuei buruzkoak
- f) Jarduera eta instalazioei buruzkoak
- g) Ingurumen eraginari buruzko azterketak.

2. Atala. Hirigintza partzelazioak.

4. artikulua.- Hirigintza partzelazioak.

1.- Arau hauetako 37. artikuluan aurreikusitako hirigintza partzelazioko baimenak jaso nahi izanez gero, proiektua aztertu ondoren emango dira. Ondorengo hauek jasoko dira proiektuan:

a) Partzelazioaren arrazoiak eta dagozkion arauetako xedapenen arabera zehaztutako ezaugarriak egiaztatzen dituen memoria. Memoria horretan lehenik zegoen finka bakoitza eta partzela berri bakoitza deskribatuko dira, eta gainera, argi eta garbi azalduko da azken horiek egokiak direla arau hauetan ezarritako erabilieretarako, eta, hala badagokio, bertan eraikinak egiteko.

b) Egungo egoeraren planoak, 1/500 eskalan edo handiagoan; plano horietan partzelen agiri ofizialetan erregistraturik dauden jatorrizko finkak, eraikinak, egon dauden zuhaitzak eta lurren erabilera adieraziko dira.

c) Partzelazioari buruzko planoak, 1/500 eskalan gutxienez. Bertan, partzela bakoitza behar bezala identifikaturik azalduko da, eta gainera, egiaztatuko da arau hauetako baldintzak kontuan hartuta, ez dela aprobetxa ezin den partzelarik gelditzen.

d) Partzela bakoitzaren hirigintza zedularen proposamena.

2.- Partzelazio baimena ematerakoan, lagapenak gauzatu beharko dira bideak handitu ahal izateko, Arau Subsidiarioetako dokumentu grafikoetan nahiz une bakoitzean indarrean dagoen legedian bideak handitzeari buruz aipatutako lagapenak, hain zuzen.

Era berean, partzelazio bat egin aurretik, jatorrizko finka osoaren kanpoko urbanizazio proiektua aurkeztu beharko da, eta proiektu hori gabe ez da inolako baimenik emango partzela horietan eraikinik egiteko.

3. atala. Urbanizazio proiektuak.

15. artikulua.- Definizioa eta edukia.

1.- Urbanizazio proiektuak Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 15. artikuluan eta Hirigintza Plangintzako Arautegiko 69. eta 70. artikuluetan adierazitako dokumentuek osatuko dituzte, barne hartutako obren gauzatze definizio osoak eskatzen duen xehetasunarekin eta osagarriekin. Abenduaren 4ko Irigarritasuna Sustatzeko Legea (LO/1997) zehatz-mehatz betetzen dela adierazi beharko da. Edonola ere, ondorengo agiriak ere sartu beharko dira:

a) Planoa, 1/500 eskalan gutxienez. Bertan, honako hauek adieraziko dira: gauzatzeko proiektuaren planak dituen mugak, obren kokapena eta bideen mugak, erabilera publikoko parkeak eta lorategiak eta erabilera pribatuko espazio ireki eta libreak, planarekin bateragarriak ez direlako eraitsi, moztu edo lekuz aldatu beharreko zuhaitzak edo eraikinak, zerbitzu publikoko edo gizarte intereseko ekipamenduak jartzeko eta eraikuntza pribatuak egiteko aurreikusitako partzelak.

b) Obren plan zehaztua. Bertan, fase bakoitzaren azken epea eta zatikako epeak ere finkatuko dira, horrelakorik izatekotan.

2.- Hona hemen urbanizazio obretako gutxienezko baldintzak:

a) Edateko urez hornitzeako sarea:

. Edateko urez hornitzea helburu duten urbanizazio obrak diseinatu eta gauzatzeko, NTE-IFA arauetan ("Eraikuntzako Arau Teknologikoak. Iturgintzako Instalazioak: Hornidura") xedatutakoa hartuko da kontuan.

. Sarearen inguruko kalkuluak egiteko orduan, bizitegi zonetan batez besteko kontsumoa egunean orduko 300 litrokoa izango da.

Zona industrialetan, berriz, gutxienez 0,5 litrokoa segundo eta hektarea bakoitzeko.

Kontsumorik handiena kalkulatzeko, eguneroko batez besteko kontsumoa 3,0 zenbakiaz biderkatuko da.

. Dena den, andeletan, kontsumo handieneko egun bati dagokion bolumena izatea ziurtatu behar da.

proyectos técnicos, los cuales, según su objeto, se incluyen en algunas de las siguientes clases:

- a) De parcelaciones urbanísticas
- b) De urbanización
- c) De obras ordinarias de urbanización
- d) De edificación
- e) Otras actuaciones urbanísticas
- f) De actividades e instalaciones
- g) Estudios de Impacto Ambiental.

Sección 2ª. Parcelaciones urbanísticas.

Artículo 14.- Parcelaciones urbanísticas.

1.- Las licencias de parcelación urbanística, contempladas en el artículo 37 de estas Normas, se concederán sobre la base de un proyecto con el siguiente contenido:

a) Memoria justificativa de las razones de la parcelación y de sus características en función de las determinaciones de las Normas sobre el que se fundamente. En ella se describirá cada finca original existente y cada una de las nuevas parcelas, debiéndose hacer patente que estas resultan adecuadas para el uso que las Normas les asigna y que, en su caso, son aptas para la edificación.

b) Planos de estado actual, a escala 1/500 como mínimo, donde se señalen las fincas originarias registrales representadas en el parcelario oficial, las edificaciones y arbolado existentes y los usos de los terrenos.

c) Planos de parcelación, a escala 1/500 como mínimo, en los que aparezca perfectamente identificada cada una de las parcelas resultantes y pueda comprobarse que no quedan parcelas inaprovechables según las condiciones señaladas por las Normas.

d) Propuesta de cédula urbanística de cada parcela resultante.

2.- En el momento de la concesión de la Licencia de Parcelación se harán efectivas las cesiones indicadas en la Documentación Gráfica de las Normas Subsidiarias para ampliación de viales, así como las correspondientes a la legislación vigente en cada momento.

Asimismo, previa la realización de la parcelación, se deberá presentar el Proyecto de Urbanización exterior de la totalidad de la finca original y no se concederá ninguna licencia de edificación en las parcelas resultantes si no se ha ejecutado la mencionada urbanización exterior.

Sección 3ª. Proyectos de Urbanización.

Artículo 15.- Definición y contenido.

1.- Los Proyectos de Urbanización estarán constituidos por los documentos señalados en el art. 15 del T.R.L.S. y en los arts. 69 y 70 del R.P.U., con el detalle y complementos que requiera la completa definición ejecutiva de las obras comprendidas. Se especificará el estricto cumplimiento de la Ley LO/1997, de 4 de diciembre para la promoción de la accesibilidad. En todo caso, incluirán, además, los documentos siguientes:

a) Plano a escala mínima 1/500, en el que se fije claramente los límites del plan que se proyecta ejecutar, la situación de las obras, los límites de los espacios viarios, los parques y jardines de uso público y los espacios abiertos y libres de uso privado, las construcciones, plantaciones o instalaciones que, por ser incompatibles con el plan, hayan de derribarse, talarse o trasladarse, las parcelas para equipamientos de servicios públicos o de interés social y las previstas para edificación privada.

b) Plan de obras detallado, en el que se fije tanto el plazo final como los parciales de las distintas fases, si las hubiere.

2.- Las condiciones mínimas de urbanización serán las siguientes:

a) Red de abastecimiento de agua potable:

. Para el diseño y ejecución de las obras de urbanización que tengan como objeto el abastecimiento de agua potable, se tendrá en cuenta lo previsto en la NTE.IFA ("Normas Tecnológicas de Edificación. Instalaciones de Fontanería: Abastecimiento").

. Para el cálculo de la red en zonas residenciales el consumo medio será de 300/l/h.d.

En zonas industriales el mínimo medio será de 0,5 l/seg. y Ha.

El consumo punta para el cálculo se obtendrá multiplicando por 3,0 el consumo diario medio.

. Deberá asegurarse una capacidad mediante depósitos de volumen igual a un día punta.

. Era berean, NBE.CPI-96 Oinarrizko Araudian eraikinetan suteen aurka hartu beharreko babes neurriei buruz xedatutakoa bete beharko da.

. Parke eta lorategietan ureztatzeko sarea ezarriko da, eta batez besteko eguneko kontsumoa 20 m³/Ha koa izango da.

b) Energia elektrikoa eta herriko argiak:

Banaketa sareak:

Kanalizazio guztiak lurpean joango dira.

. Banaketa sareen kalkulua eraikinen ezaugarri, erabilera eta elektrifikazio mailaren arabera egingo da.

. Hona hemen etxebizitza bakoitzak gutxienez izango dituen potentziak:

Elektrifikazio maila altua: 8.000 W.

Elektrifikazio maila ertaina: 5.000 W.

Gutxienezko elektrifikazio maila: 3.000 W.

Biztanle bakoitzeko potentzia 0,6 KW-ekoa izango da, gutxienez.

. Industria eta Energia Ministerioaren MI-BT/010 instrukzioan ezarritako aldebereotasun koefizienteak erabiliko dira.

. Banaketa lurpekoa izango da.

. Tentsio txikiko sarea 220/380 voltetako izango da.

. Transformazio guneak partzela eraikigarrietan kokatuko dira, eta ez bide publikoetan.

Herriko argiak:

. Herrilan eta Hirigintza Ministerioi oinarritutako ezarritako irizpideak eta xedapenak aplikatuko dira.

. Joan etorri handiko hiri arterietako argiaren mailak, zerbitzuan, 30 luxekoak edo handiagoak izango dira. Bigarren mailako bideetan 15 luxekoak, zerbitzuan. Oinezkoentzat baino ez diren kaleek girotze argia izango dute.

. Udalak erabakiko du zein argiteria mota jarri.

c) Urak husteko eta saneamenduko sarea.

. Sistema banatzailea erabiliko da: euri-urak eta hondakin urak bakoitza bere bidetik hustuko dira.

. Arazketa sisteman NTE-ISD araudian (Osasungarritasun instalazioak: arazketa eta isurketak) xedatutakoa beteko da.

. Aldez aurretik aztertu behar da egin nahi den sareak, urak araztu ondoren, hodi biltzaile publikoko edo berezko ubideko zein puntutan isuriko dituen. Isurketa egingo den eremuan ibaiak duen sailkapenari buruz Uren Ikuskatzailetzak prestatutako txostena eskatuko da, sarea egin aurretik.

. Diseinurako NTE-ISA araudia hartuko da kontuan ("Osasungarritasun instalazioak: estolderia").

. Ibilgailuentzako bide guztiak, eraikitzerakoan, euri-uren bilketaz eta kolektorez hornitu beharko dira.

. Sareko abiadura honelakoa izango da: isuria ez sedimentatzeko moduko abiadura edo hodien materiala ez higatzeko moduko abiadura. Zementu zentrifugatuzko edo bibratuzko hodietan segundoko 3 metroko abiadura onartuko da, gehienez ere. Hodien materiala gogorragoa bada, abiadura hori handitu egin daiteke. Gutxienezko abiadura segundoko 0,5 m-koa izango da.

. Maldak emarien arabera zehaztuko dira.

. Erregistro putzuak jarriko dira, batetik bestera 30 eta 50 metro bitarteko tartea utziz.

. Sareak hasten diren lekuetan, deskargatzeko ganberak ezarriko dira garbitzeko.

d) Dagokion gas sarea ere jarri beharko da. Gas sareak herriko hornikuntzaz arduratzen den enpresaren arautegia bete beharko du.

e) Zoladurak.

. Bide berrien diseinuan, aparkalekuetarako beharrezko den tokia ordenantzen arabera oin berriko eraikinetarako eskatzen denaz aparte egongo da.

. Lurraren baldintza geotermiko, bide mota, trafikoa, eta abarrekoen arabera, bidezko egokiena aukeratuko da. Ildo horretatik, galtzadetarako galipot aglomeratua edo hormigoia izango da ohikoena. Espaloiei dagokienez, zonak, aurreikusitako erabilera, etab. kontuan hartuta aukeratuko da zoladura.

f) Berdeguneak urbanizatzea.

. Berdegune eta espazio libre publikotarako gordetako eremuak urbanizatu, zuhaitzez eta lorategiz hornitu eta oro har egokitzeko obra guztiak zehaztuko dira.

. Se cumplirá asimismo lo dispuesto en la Normativa Básica NBE CPI-96 de protección contra incendios en los edificios.

. En las zonas de parques y jardines se preverá una red para riego con un consumo mínimo diario de 20 m³/Ha.

b) Energía eléctrica y alumbrado público:

Redes de Distribución:

Todas las canalizaciones se realizarán de forma subterránea.

. El cálculo de las redes de distribución se hará de acuerdo con las características, usos y grados de electrificación de los edificios.

. Las potencias mínimas por vivienda serán:

Grado de electrificación elevado: 8.000 W.

Grado de electrificación medio: 5.000 W.

Grado de electrificación mínimo: 3.000 W.

La potencia por habitante mínimo será de 0,6KW.

. Se emplearán los coeficientes de simultaneidad fijados por la instrucción M. Industria MI B/010.

. La distribución deberá ser subterránea.

. La red en baja tensión será de 220/380 voltios.

. Los centros de transformación se ubicarán en parcelas edificables, no en las vías públicas.

Alumbrado público:

. Se adoptarán los criterios y disposiciones de la normativa del Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo.

. Los niveles de iluminación en vías arteriales de tránsito intenso serán iguales o superiores a 30 lux en servicio. En vías secundarias de 15 lux en servicio. Las vías exclusivamente peatonales, iluminación de ambiente.

. El modelo de luminaria será el indicado por el Ayuntamiento.

c) Red de evacuación de aguas y saneamiento.

. Se utilizará el sistema separativo: evacuación de pluviales y residuales por un conducto independiente.

. Respecto al sistema de depuración se observarán las disposiciones de la NTE-ISD ("Instalaciones de salubridad: depuración y vertidos").

. Deberá preverse el punto de vertido de la red proyectada a colector público o cauce natural previa depuración. Se exigirá un informe previo de la Comisaría de Aguas sobre la clasificación del río en la zona donde se va a efectuar el vertido.

. Para el diseño se tendrá en cuenta la NTE-ISA ("Instalaciones de Salubridad: alcantarillado").

. Todas las vías de tránsito rodado se deberán dotar en el momento de su construcción de colectores y recogida de pluviales.

. Las velocidades de la red deberán quedar comprendidas entre los límites necesarios para evitar la sedimentación del efluente o la erosión del material de las conducciones. Las velocidades máximas permitidas serán de 3 m/seg. en caso de tuberías de cemento centrifugado o vibrado, pudiendo aumentarse en caso de otro material más duro. La velocidad mínima no descenderá de 0,5 m/seg.

. Las pendientes se determinarán de acuerdo con los caudales.

. Se establecerán pozos de registro entre 30 a 50 mts.

. En las cabeceras de las redes se establecerán cámaras de descarga para limpieza.

d) Se dejará prevista la Red de Gas correspondiente, que cumplirá la Normativa de la Empresa concesionaria del suministro en la localidad.

e) Pavimentaciones.

. En los diseños de nuevas vías, los espacios necesarios para aparcamientos deberán considerarse independientemente de los que se exijan a las construcciones de nueva planta en las ordenanzas.

. Dependiendo de las condiciones geotécnicas del terreno, tipo de vías, tráfico, etc., se adoptará el firme más conveniente señalándose el aglomerado asfáltico u hormigón como más normales en calzadas. Respecto a los acerados se adoptará el tipo de pavimento según zonas, uso previsto, etc.

f) Urbanización de zonas verdes.

. Se concretarán todas las obras a realizar para la urbanización, arbolado, ajardinamiento y acondicionamiento general de las áreas reservadas para zonas verdes y espacios libres públicos.

. Berdeguneetan ureztatze automatikoko sistema jarriko da.
 . Lorategietako obrak argi-argi definitzeko beharrezkoak diren agiri guztiak bildu beharko dira, apaintetako eta zuhaixkak ezartzeko lanak ere barne; orobat eraikuntza osagarriak egiteko lanak, eta, hala balegokie, baita multzoa osatuko duten energia elektrikoaren, argiteriaren eta ur banaketaren sareak ere.

. Zuhaitzak eta zuhaixkak jartzerakoan, edonola ere, jarri behar diren lekuko klima, edafologia eta ekologia hartuko dira kontuan.

. Edozein zuhaitz mota landatu ahalko da, landare osasuneko arrazoiengatik debekatutakoak edota Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak bateraezintasun ekologikotzat zerrendatutakoak izan ezik.

f) Gainerako zerbitzuak.

Hodi guztiak lurpean joango dira.

Beste instalazio teknikoak (telefonoa, gas energetikoaren hornidura, etab.) buruzko xedapenei jarraituz zehaztuko dira obrak.

Proiektuek konpainia hornitzaileek ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

4. atala. *Urbanizazio obra arrunten proiektuak.*

16. artikulua.- Definizioa eta edukia.

Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 15. artikuluan eta Hirigintza Plangintzako Arautegiko 67.3 artikuluan definitutako urbanizazio obra arrunten proiektuak Hirigintza Plangintzako Arautegiko 69.1 artikuluan eta aipatzen diren agiriak osatuko dituzte, eta proiektu horiek arau hauetako aurreko artikuluko 2. paragrafoan urbanizazio obretarako aipatutako gutxienezko baldintzak beteko dituzte.

5. atala. *Eraikuntza proiektuak.*

17. artikulua.- Motak.

1.- Urbanizatu eta eraikitako ondarea birgaitzeko jarduera babestuei buruzko uztailaren 30eko 214/96 Dekretuarekin (EHAA, 1996ko abuztuaren 13koa) bat, obrak proiektuetan definitzeko eta araudi honetan araututako baldintza orokorrak nahiz partikularrik aplikatzeko, honela sailkatuko dira eraikuntzako lan (edo eraikuntzako esku-hartze) horiek:

a) Oin berriko esku hartzeak.

. Hutsik dauden orubeetan.

. Ordezkatzea.

b) Eraikinak eraisteko esku-hartzeak.

c) Handitzeko obrarik gabeko eraikinetan esku-hartzea.

. Zaharberritze zientifikoa.

. Kontserbatzeko zaharberritzea.

. Kontserbazioa eta apaindurak.

. Sendotzea.

. Berreraikitzea.

. Eraberritzea.

d) Eraikuntzako esku hartzeak, handitze lanekin.

Ondare Historiko eta Artistikoen Katalogoan jasotako elementuei eta bertan ezarritako babes araubideari dagokionez, eraikuntzako esku-hartzeak eta eraikuntzako lanak Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren urbanizatu eta eraikitako ondarea birgaitzeko jarduera babestuei buruzko uztailaren 30eko 214/96 Dekretuari (EHAA, 1996ko abuztuaren 13koa) jarraituz sailkatuko dira.

2.- Gainera, etxe aurrefabrikatuak eta antzekoek oin berriko esku-hartze izaera izango dute, baimenak emateaz ari garela.

3.- Aurrekoen gain, beste honako hauek ere obra handiak izango dira:

a) Eraikinen egitura edo kanpoaldeko itxura handitu eta/edo aldatzea.

b) Eraikineko elementu komunak aldatzea.

c) Eraikinak duen etxebizitza kopurua aldatzea.

4.- Aurreko paragrafoan aipatu ez direnak dira obra txikiak.

18. artikulua.- Eraikuntza proiektu oren baldintzak.

1.- Eraikuntza obren proiektuek agiri hauek izan behar dituzte, gutxienez:

a) Obraren ezaugarri orokorrak deskribatzen dituen memoria, eta hartu diren irtenbide zehatzen justifikazioa. Obrak arau hauetan

. Se incluirá el sistema de riego automático en las zonas verdes.

. Se recogerá toda la documentación precisa para definir con toda claridad las obras de jardinería, comprendiendo las de acondicionamiento arbustivo y ornamental, así como las edificaciones auxiliares y, en su caso, las redes de energía eléctrica, alumbrado y distribución de agua que complementen el conjunto.

. En la introducción de especies arbóreas y arbustivas de plantación habrá de tenerse en cuenta, en todo caso, los factores climáticos, edáficos y ecológicos del lugar de actuación.

. Se permitirá la plantación de cualquier variedad arbórea a excepción de las especies prohibidas por motivos fitosanitarios y/o de incompatibilidad ecológica, enumeradas por la Dirección de Medio Ambiente de la Diputación foral de Álava.

f) Resto de servicios

Todas las conducciones se realizarán de forma subterránea.

Concretarán las obras con las que se llevarán a cabo las determinaciones establecidas en todo lo referente a otras instalaciones técnicas tales como la telefonía, el abastecimiento de gas energético, etc.

Los proyectos cumplirán todas las condiciones establecidas por las correspondientes compañías suministradoras.

Sección 4ª. Proyectos de obras ordinarias de urbanización.

Artículo 16.- Definición y contenido.

Los proyectos de obras ordinarias de urbanización, definidos en el artículo 15 del T.R.L.S. y en el artículo 67.3 del R.P.U., estarán constituidos por los documentos señalados en el artículo 69.1 del R.P.U. y cumplirán las condiciones mínimas de urbanización indicadas en el párrafo 2 del artículo anterior de estas Normas.

Sección 5ª. Proyectos de edificación.

Artículo 17.- Clases.

1.- A los efectos de su definición en proyectos y de la aplicación de las condiciones generales y particulares reguladas en la presente normativa, las obras de edificación (o intervenciones constructivas) se clasifican, de conformidad con el Decreto 214/96, de 30 de julio, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado (BOPV de 13 de agosto de 1996) en:

a) Intervenciones de nueva planta.

. Sobre solares vacantes.

. Sustitución.

b) Intervenciones de demolición.

c) Intervenciones constructivas sin ampliación

. Restauración científica.

. Restauración conservadora.

. Conservación y ornato.

. Consolidación.

. Reedificación.

. Reforma.

d) Intervenciones constructivas con ampliación.

En lo que se refiere a los elementos recogidos en el Catálogo del Patrimonio Histórico-Artístico, y de acuerdo con su régimen de protección, las intervenciones constructivas y las obras de edificación, se clasifican de conformidad con el Decreto 214/96, de 30 de julio, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado (BOPV de 13 de agosto de 1996) del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

2.- Además, las casas prefabricadas y similares tendrán la consideración, a los efectos de la concesión de licencia, de intervenciones de nueva planta.

3.- Se consideran obras mayores, además de las anteriores:

a) Ampliación, modificación de la estructura y/o el aspecto exterior de las edificaciones.

b) La modificación de los elementos comunes del edificio.

c) La modificación del número de viviendas del edificio.

4.- Son obras menores las no incluidas en el párrafo antecedente.

Artículo 18.- Condiciones comunes de los proyectos de edificación.

1.- Los proyectos de obras de edificación comprenderán como mínimo los siguientes documentos:

a) Memoria descriptiva de las características generales de la obra y justificación de las soluciones concretas adoptadas, justifi-

edo arauak garatzen dituen araudian oinarritu beharko du, hirigintzari dagokionez obra justifikatzean.

